

# Kultur Agenda

Maiatza  
Ekaina  
Agoitz  
2021

📞 948 336 690

✉ cultura@aoiz.es

📘 Facebooken gaude



www.aoiz.es

  
Agoizko Kultur Etxea  
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako  
Gobernua

 NAFARROAKO  
ANTZOKI  
SAREA

# maiatza

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

# ekaina

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

## Maiatza

**2a Dantza.** Aitzindariak . Nafarroako Dantza Garaikidea - DNA'21

**9a Bertsolaritza.** ZAPLA!

**13a Agoitz Hiria XIV. Ipuin Laburren Lehiaketa.** Sari banaketa

**16a Antzerkia.** Crusoe. Markeliñe

**21-1 Erakusketak.** Artista Txikiak

**23a Zine-Dokumentala.** Non dago Mikel?

**29a Oholtzara Salto.** Printzesa esnatzen. Arte Eszeniko Tailerrak

## Ekaina

**1a Musika.** Txistu Entzunaldia. Uharteko eta Agoizko Txistu Gelak

**4a Hitzaldia.** Osasuna, hala eta guztiz ere. Positiboan bizitzea

**5-17 Erakusketak.** Ikastaroak 2020-2021

**12a Musika.** Toy Story, Musikala. Agoizko Musika Eskola

**18, 22 Musika.** Ikasturte Bukaerako Ekitaldia. Agoizko Musika Eskola



## AITZINDARIAK

IXA UNIVERSOS DE MOVIMIENTO



**2** maiatza  
igandea

**19:00 Kultur Etxea. 6€**

Publiko gaztea-heldua  
Iraupena: 60'



Dantza garaikide hau abstraktutik aldentzen da, ikusleekin zuzenean lotzen da, eta, artearen bidez, gogoeta egiten du gaur egungo gai bizienetako bati buruz: munduak pertsonen arteko berdintasuna ulertzeko duen beharra.

Berdintasunaren aldeko borroka hasi eta egungo borrokalariei lagun egiten dieten aitzindariak omentzen dira, kanpoko mundutik barrualdera egindako bidaia poetiko batean. Hiru eszenaren bidez, "takoia" elementua esploratzen da; "soka" elementuak kolektibo gisa generoak jasaten duen errepresio soziala irudikatzen du; "petalo" elementuak, aldiz, natura, askatasuna eta batasuna sinbolizatzen ditu, indibidualtasunari kontrajartzeko eta taldearen boterea gogoratzeko, elkarrekin indartsuagoak baikara.

**Zuzendaritza orokorra:** Saioa Belarra.

**Zuzendaritza artistikoa, ideia eta koreografia:** Xián Martínez.

**Antzezleak:** M<sup>a</sup> José Casado, Marionna Jaume, Ana F. Melero, Kateryna Humenyuk, Saioa Belarra.

## Bertsolaritza

### ZAPLA!

NAFARROAKO BERTSO PLAZA MARTXAN



**9** maiatza  
igandea

**18:30 Kultur Etxea. 8€**

**Sarrerak:** [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

**info +:** [www.bertsozale.eus/nafarroa](http://www.bertsozale.eus/nafarroa)



Zazpi saiok osatzen dute bertso zirkuitua da Zapla! eta ekitaldi bakoitzak izaera propioa izanen du, besteengandik ezberdina. Nafar bertsolari ezberdinek kantatuko dute saioetan, eta era berean, bertsolaritzaren aniztasuna ere islatu nahi du egitasmoak, kultur adierazpen horren barruan egon daitezkeen saio mota ezberdinak bilduz.

**Bertsolariak:** Aitor Irastortza, Eneko Fernandez, Joanes Illarregi, Mintxo Astiz, Patxi Castillo.

**Gai-jartzailea:** Ainhoa Larretxea.

#### OHARRA:

Internet bidezko sarrerak erosteko aukera maiatzaren 9an bukatuko da, 15:00etan. Hortik aurrera, sarrerarik geldituko balitz bakarrik salduko lirateke leihatilan.

# Musika

**OHARRA:** Gonbidapenak Musika Eskolako ikasleen familien artean banatuko dira, eta ordu bete lehenago Agoizko Kultur Etxeko leihatilan jarriko dira publiko orokorraren eskura.

## TXISTU ENTZUNALDIA

UHARTEKO ETA AGOIZKO TXISTU GELAK



**1** ekaina  
asteartea

**19:00 Kultur Etxea. Sarrera librea**

Antolatzailea: Uharteko eta Agoizko Txistu gelak

## TOY STORY, MUSIKALA

AGOIZKO MUSIKA ESKOLA



**12** ekaina  
larunbata

**19:00 Kultur Etxea. 3€**



Aurten ere, Agoizko musika eskolako ikasleek ilusioz aurkeztuko digute beren antzerki musikala. Musikala ikasgaiko ikasleek, eskolako bandaren laguntzarekin, Disneyren Toy Story filmaren egokitzapen bat antzeztuko dute. Istorio dibertigarria da, arratsalde entretenigarria igarotzeko aukera emanen diguna. Azpimarratzekoa da artista txiki horiek ikasturtean zehar egin duten lana, antzezpeneren gidoia, dantzak, dekoratuak eta abestiak haiek berek prestatu baitituzte, antzerki musikaleko konpainia oso bat bihurtuta.

## IKASTURTE BUKAERAKO EKITALDIA

AGOIZKO MUSIKA ESKOLA



**18,22** ekaina  
ostirala, asteartea

**19:00 Kultur Etxea. Sarrera librea**



## Line - Dokumentala

### NON DAGO MIKEL?

AMAIA MERINO / MIGUEL ÁNGEL LLAMAS



**23** maiatza  
igandea

**18:00 Kultur Etxea. 4€**

1985eko azaroa. Guardia Zibilak, terrorismoaren kontrako operazio baten barrenean, Mikel Zabalza atxilotu du, autobuseko gidari gazte bat, beste pertsona batzuekin batera. Gainerako gazteak askatu dituztenean, tortura basatiak jasan izana salatu dute. Baina Mikel falta da.

Agintariek ihes egin duela esanik ere, agintariek ihes egin duela esan duten arren, bizirik aurkitzeko esperantza ahuldu ahala, Euskal Herriko kaleetan oihu bat adituko da gero eta ozenago: "Non dago Mikel?"

# Antzerkia

## CRUSOE MARKELIÑE

2020ko MUSIKA ONENAREN FETÉN SARIA



**16** maiatza  
igandea  
**19:00 Kultur Etxea. 4€**



Publikoa: Familiarra  
Iraupena: 55'

Itsasoaren eta itsasoko munduaren zaporea duen uharte bakar-titik, Crusoek denbora eta itsasontziak igarotzen ikusten ditu, eta bat bera ere ez da geratzen. Gauzak, bizitzan gertatzen diren naturaltasunez gertatzen dira, batzuetan harriz, beste batzuetan deseroso sentiaraziz eta, gehienetan, jasaten erakutsiz. Orduan, Crusoek bizitza lasaia bizitzea lortzen du, Ostiralek lagunduta. Itsaso zabalean dagoen itsasontziak bezala, urrunean igarotzen ikusten dugun bizitza.

**Antzezleak:** Fernando Barado, Itziar Fragua, Jon Koldo Vázquez, Estibaliz Villa.

**Musika:** Roberto Castro.

## Beste jarduerak

### AGOITZ HIRIA XIV. IPUIN LABURREN LEHIAKETA SARI BANAKETA

Maiatzaren 13a | osteguna | 17:00 | Kultur Etxea | Sarrera librea  
Pantxika Lamur-ek aurkeztuta

### OHOLTZARA SALTO ARTE ESZENIKO TAILERRAK

Maiatzaren 29a | larunbata | 19:00 | Kultur Etxea | Sarrera librea

Tailerrean parte hartutako gazteak antzeztua

Zuzendaria: Jaione Urtasun

### PRINTZESA ESNATZEN

Désirée Ortega Cerpa-ren antzezlan

Iraupena: 30'



Parte-hartzaileek 16 saiotan zehar adierazpen-lana, interakzio-lana (pertsonekin eta gainerako ikaskideekin) eta lagin-lana egiten dituzte. Horretarako, jolasaren, inprobisazioaren, ahotsaren, gorputzaren, mugimenduen, interpretazioaren, pertsonaiaren eraikuntzaren, espazioaren, eszenografiaren, sormenaren, onarpenaren, kritikaren inguruko dinamikak eta proposamenak egiten dituzte.

### HITZALDIA:

### OSASUNA, HALA ETA GUZTIZ ERE. POSITIBOAN BIZITZEA

Ekainaren 4a | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea


Hizlaria: David Brugos Miranda

Antolatzailea: Agoizko Alargun eta Pentsiodunen Plataforma



\*AFOROA: TALDEKO GEHIENEZ 10 LAGUN

## ARTISTA TXIKIAK



**21-1** maiatza-ekaina  
Areto Nagusia

San Migel Ikastetxeko eta Institutuko  
ikasleen lanak.

Antolatzailea: San Migel Ikastetxea eta DBHI-a

## IKASTAROAK 2020-2021



**5-17** ekaina  
Areto Nagusia

LEHENGORATZEA / PINTURA / EHOZIRIAK

### Sarrereren salmenta:

• Interneten: [www.aoiz.es](http://www.aoiz.es)

• Oharra: Sarrerak Internet bidez erosi ezin duenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketa zabalik dagoen ordutegian.

• Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago  
(sarrerarik gelditzen bada)

\*Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

### Arau orokorrak:

- Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.
- Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartu eta.
- Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.
- 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.
- Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.
- Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.
- Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.
- Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.
- Programazioan zerbait gertatuz gero edo aldaketarik emanez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.
- Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.
- Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

## COVID-19 SEGURTASUN-NEURRIAK

Agoizko Kultur Etxean, osasun-agintarien gomendioak eta gidak jarraituz, babes-neurriak ezarri ditugu gure zerbitzu eta instalazioetan, koronabirusarekiko esposizioaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen arabera.

### 1. Instalazioak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea

- Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren, erabiliko diren instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira.
- Erabiltzaileek erabil ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edo eta erabilera-maiztasunaren eta jende-fluxuen arabera.
- Gel-banagailu hidroalkoholikoak behar bezala seinaleztatuta jarriko dira.

### 2. Instalazioetara sarbideak eta zirkulazioak

- Publiko-fluxuak zuzentzeko behar diren bitartekoak artikulatuko dira. Sarrera mailakatu izango da, eta segurtasun-tarte egokiak gordeko dira.
- Txarteldegian zein aretoetarako sarbideetan segurtasun-distantzia mantentzen dela zainduko da, lurrean argi eta garbi identifika daitezkeen markak txertatuz.

### 3. Norberaren osasuna eta higiena

- Kultur Etxean eta antolatutako ikuskizunetan derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea.
- Gel-hidroalkoholikoa aretoaren sarreran egongo da.